

KOSTUEN EGITURA

Aplikazioaren ekoizpenerako eta barne kudeaketarako kontratatu beharreko langileen (informatikaria, diseinatzailea...) soldata izango da gure kostu finkoa. Lokala alokatzekotan etorkizun batean, hau ere kostu finkoa izango litzateke.



Ordenagailu profesional bat ere erosiko dugu proiektua hasten dugunean.



Azkenik, hainbat **festibaletarako sarrerak** ere zozketatuko ditugu, eta hori egin ahal izateko, **kostu aldakor** batzuk ere izango ditu gure enpresak. Festibal horietan, gure enpresaren iragarkiak egotea nahi badugu, ere, kostuak edukiko ditugu.

Taula honetan, estimatutako gutxi gorabeherako kostuak adierazi ditugu:

KOSTUAREN ITURRIAK INBERTSIOAN	KOSTUA
APP-a sortzea	18000-20000€
LANGILEAREN SOLDATA (app-aren barne kudeaketa)	1500-2000€
ORDENAGAILU PROFESIONALA	700-1800€
ZOZKETAK	500€
HASIERAKO INBERTSIOA	24300-34200€

Hasierako inbertsioko dirua lortzeko, 24300-34200€, maileguak eskatuko genituzke, baita gobernuko osasun mentalera bideratutako elkarteei donazioak ere.

KOSTUAREN ITURRIAK HILABETE BATEAN	KOSTUA
App-aren aldaketak/hobekuntzak	200-800€
LANGILEAREN SOLDATA	1500-2000€
ZOZKETAK	500€
KOSTU TOTALA HILABETE BATEAN	2200-3300€